



PANKREA-GUTXIEGITASUNERAKO HATS-TESTA EGITEKO ARAUAK. PANCREOKIT (13-C TRIGLIZERIDOAK)

ZER DA PROBA HAU?

Pankrea-gutxiegitasun exokrinoa dagoen diagnostikatzen laguntzen duen proba bat da. Gutxiegitasun hori gantzen digestio txarrarekin lotzen da elkartutako pankrea-patologia duten pazienteengan.

PROBA EGITEKO EGUNEAN

- Proba goizez egiten da, AUOko kanpoko kontsultetako eraikineko 4. solairuan.
- Baraurik egon behar duzu aurreko gauetik, gutxienez 8 orduz (ezin duzu solidorik hartu, ez eta likidorik ere, ura barne).
- Proba egin aurreko 2 egunetan EZ duzu arto, brokoli eta lekale ugariko elikagairik jan behar.
- Erretzailea bazara, ez duzu erre behar.
- Goizeko 07:30ean konprimatu bat prinperan © (metoklopramida) hartuko duzu, alergia ez badiozu betiere. Sendagai horrekiko alergia edo intolerantzia edukiz gero, guri jakinarazi goragalea saihesten duen beste farmako bat emateko.
- Diabetikoa bazara eta intsulinarekin tratamendua hartzen ari bazara, ekar itzazu zure glukometroa eta tratamendua (intsulina).

ZER DA PROBA HAU?

- Miaketa-gelan, determinazio basala egingo da, eta ahoko batetik egin beharko duzu putz horretarako emango dizkizugun bi hodiedan.
- Horren ostean, probaz arduratzen diren erizaintzako langileek ogi txigortuak gurinarekin, probarako behar den substratua eta basokada bat ur emango dizkizute.
- Jarraian, eserita hartuko duzu atsedean itxarongelan, eta 30 minutuan behin, beste hodi batzuetan ahokotik putz egingo duzu, proba amaitu arte (6 ordu).

OHARTARAZPENAK

- Ezin duzu ur gehiago edan proba amaitzen den arte.
- Probaren emaitzak dagokion azterketa-kontsultan jasoko dituzu.
- **Harremanetarako telefonoak:** zalantzarik baldin baduzu, deitu telefono-zenbaki honetara: 945 007 592. Kontsultara joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu behar baduzu deitu 945 007500 telefono-zenbakira.